

OTIS REDDING GOGOAN

Urtzi Urrutikoetxea

Bilbao. 17 urte

Nik, disko bakarra dut.
Ez pentsa otoi ezdeusaren palazioaren men
 abaildu garenik gurean otoi,
monotonia faltsuzko asfaltoaren
 urguiluak basook ixiotu lez edo, ez!
Hau, lagunok,
xingleagoa da
behiala galdu genituen
papiro analfabeto horien moduan
—jauregietako arkupe ezkutuotan
 xerka itzazue—

Ene diskoan —beltz—
 koloreko gizon bat dager
eta zera diote —orlegi—
 kolorez hizki batzuek:
Otis Redding,
 eta beti
It is raining
 datorkit gogora;
ume garaiengatik apika

Badiako moilan jezarririk
denpora aldegiten miratuz
erromes akitua naiz

nerauk sortu eremuetan
eta azkenean,
zuribeltzean,
zistu soinua,
haizearen nostalgiaren
murmurioekin batzeko.

Disko bakarra dut
eta,
okasio bere-e-e-ezietan soilik dantzut,
belarri ertzean xuxurlari dorperik ez denean,
antigoaleko drama heleniarretan uzkur gurean,
gauza hoberik eztenean,
badakizue,
reality-show-rik eztenean eta halan.

Orduan,
Hauptbahnhof arretik apeadero kolorge
ttikirainoko infinitua zeharkatzen dizuet,
markako txikle paketearen sentsualitateaz
I've been loving you...

Haizeak laberintoaren
hausterrak
memoriaren erretenetatik
bihotzera barreiatuz
esku dorpez ezartzen dut,
maitasun fin,
birjin multiplikatzen dizkit
amorante bohemioen,

kalegarbitzaileen herdoil
kabiotan murgiltzen.

«My girl»ek,
xuxurlari,
pagadi zabaletan galtzen nau
amodio pindarrez zulatuz,
ez dakit,
ezkutaketan olgetan edo,
xabuka horbel alfonbra nostalgikoetan
lehen elurrek bere adatsa
leinurutzen
islei darien xarmaz jabetuz, liluraz

Eta nik disko bat bakarrik dut,
baina zein gozoki jalgitzen dituen
bere sinfoniak,
zeinen
eztiki dantzuzkidan,
zelan dakarkidan maitasun
gorpuztuaren irudia.

Nik disko bakarra dut,
disko bakarra dut,
disko bakarra,
bakarra,
bakar,
a,